



19

02

Etxerat
hiruhilabetekaria
apirila-ekaina

Euskal
Preso eta Iheslari
Politikoen
Senide eta Lagunen
Elkartea

Sarrera - Kronika

Udara irailaren 16ari begira hasi dugu, bi senide, Etxerat elkarteko kideak direnak eta bere garaian bertan lan egin zutenak, Auzitegi Nazionalen beste 45 lagunekin batera epaituak izango baitira. Hiru hamarkada hauetan euskal preso politikoen isolamendua eta haien senide eta lagunak sufrituak eragiten duen proiektuarentzat mehatxuak izan dira haien konpromisoa, elkartasuna eta burututako lana.

Mediku, abokatu eta senideen atxiloketak, Herrira bezalako mugimenduen ilegalizazioa, Guardia Zibilaren aurrean deklaratzeko zitazio masiboak kontrakorrantean doan bake prozesuarentzat oztopoak besterik ez dira izan. Guretzat, euskal preso politikoen senide eta lagunontzat, lanean aritutako urteen ondoren, isiltasun informatiboa apurtzen hasten zen momentuan iritsi ziren atxiloketa hauek. Europara espetxe politikaren errealitatea eta honen ondorioak eramatea lortu genuen, eta aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren eta Bakea eta Elkarbizitzaren bulegoarekin interpelazio zuzena egitea lortu genuen ere. Atxilotutako bi senide hauek, eta garai hartan Etxerat elkarteko langileak zirenak, European eta baita Lakuan ere bozeramaileak izan ziren.

Hau guztiarekin zilegizko helburuak lortzeko lanean ari direnen aurka aritzeko erraztasuna erakutsi arren, Etxerat elkarteak Euskal Herrian barrena eta Euskal Herritik kanpo ere salbuespen espetxe politikaren errealitatea eta honek dakarren ondorio gordinak ezagutarazteko lanean jarraitu du. Denak larriak dira, helburu horrekin sortutako espetxe politika baita. Guk, euskal preso politikoen senide eta lagunok, dispertsioaren ondorioak zuzenki jasaten ditugu. Gure osasuna eta gure bizitza astebururo jokoan jartzen dira eta dispertsioaren eraginez 16 hildako egon direla gogorarazi nahi dugu. Hurrengo hilabetetako lana 16 biktima hauen errekonozimendua lantzeko oinarrituko da.

Jose Mari Maruriaren omenez ekimen bat burutu zen hilaren 21ean Zierbanan, bere semea bixitatzerantz zihoanean izandako istripuaren biktima; ondoren, hilaren 29a, Pilar Arsuaga eta Alfonso Isasiri omenaldia egin genien Laudion, hauek ere Galizara bixita batera zihoazela izandako istripu baten biktimak. Dispertsioaren biktimak. Bidai luze bat egitera behartutako salbuespen espetxe politikaren biktimak. Biktima hauen aitortzea memoriari eta, aldi berea, elkarbizitzari ekarpen bat da.

Dispertsioarekin eta salbuespenezko neurri guztiekin behingoz amaitzeko, etxean eta bizirik nahi ditugulako eta ez dugulako horrelakorik berriz gertatzea nahi lanean jarraituko dugu.

1. DISPERTSIOA

1.1 DISPERTSIOA ETA URRUNKETA Euskal Preso Politikoen Kolektiboa

253 Euskal preso politikoak:

DISPERTSIOA

- 250, euskal preso politiko 51 espetxetan eta Zentro batean
 - Euskal preso politiko bat Euskal Herriko espetxe batean
 - Euskal preso politiko bat Besarkada Zentroan
 - 209, euskal preso politiko espainiar Estatuko 40 espetxetan eta 4 ume haien amekin dispertsatuak
 - 39 euskal preso politiko frantses Estatuko 10 espetxeetan
- 3 euskal preso politikoak espetxe arinduan

URRUNKETA

- Estatu Espainola: 209 euskal preso politikoak
 - 135 (65 %), Euskal Herritik 1100-600 km-tara espetxeetan
 - 42 (20 %), Euskal Herritik 590-400 km-tara espetxeetan
 - 32 (15 %), Euskal Herritik 100-390 km-tara espetxeetan
- État Français: 39 euskal preso politikoak
 - 12 (31 %), Euskal Herritik 1100-750 km-tara espetxeetan
 - 27 (59 %), Euskal Herritik gertuen dauden bi espetxetan

1.2 LEKUALDAKETAK - Traslados - Transferts

| | | Espetxetik: De la prisión de: De la prison de: | Km. | espetxera: a la de: à celle de: | Km. |
|-------------------------------|------------|--|-----|---------------------------------------|-----|
| Unai López de Okariz | 2019-04-03 | GRANADA (Albolote) | 840 | DAROCA | 340 |
| Idoia Martínez García | 2019-04-09 | A LAMA (Pontevedra) | 730 | VILLABONA | 400 |
| Asier Borrero Toribio | 2019-04-17 | SOTO DEL REAL (Madrid) | 400 | DUEÑAS | 300 |
| Asier Bengoa Lpz. de Armentia | 2019-04-22 | SOTO DEL REAL (Madrid) | 400 | HERRERA | 600 |
| Karlos Apeztegia Jaka | 2019-04-23 | SOTO DEL REAL (Madrid) | 400 | OCAÑA II (Toledo) | 480 |
| Mikel Karrera Sarobe | 2019-05-21 | REAU-SUD-FRANCILIEN | 870 | LANNEMEZAN | 280 |
| Jon Rubenach Roiz | 2019-05-22 | SOTO DEL REAL (Madrid) | 400 | MANSILLA (León) | 360 |
| Aitzol Iriondo Yarza | 06/06/2019 | MOULINS-YZEYRE (E. f.) | 740 | LANNEMEZAN | 280 |

1.3 FRANTZIAR ESTATUAK ESPAINIAR ESTATUARI

Entregados/as por el Estado francés - Remis/e/s par l'État français à l'État espagnol

| | |
|--------------------------|------------|
| Jon Rubenach Roiz | 2019-04-17 |
| Alberto Ilundain Iriarte | 2019-05-28 |

1.4 ASKATASUNAK / Libertades / Libérations

| | | Espetxea Prisión Prison | Urte espetxean Años en prisión Années en prison |
|---------------------------|------------|-------------------------------|---|
| Aitzol Gogorza Otaegi | 2019-04-02 | BASAURI | 20 (6) |
| Mikel Orbegozo Etxarri | 2019-04-04 | VALLADOLID | 14 (1) |
| Xabier Sagardoi Lana | 2019-04-06 | IRUÑEA | 6 (1) |
| Ekaitz Ezkerra Laspeñas | 2019-04-07 | BURGOS | 6 (1) |
| David Pla Martin | 2019-04-18 | OSNY (E. francés) | 4 (1) |
| Joseba Segurola Kerejeta | 2019-04-30 | MADRID | 6 (1) |
| Iñaki Beaumont Etxeberria | 201-05-18 | SORIA | 19 (1) |
| Marina Bernadó Bonada | 2019-05-23 | RENNES (E. francés) | 12 (1) |

- (*) 1) Zigorra beteta / Cumplimiento íntegro de la condena / Fin de la peine
 (2) Espainiar estatuaren esku utzi ondoren. Tras ser entregado por el Estado francés / Après avoir été remis par L'État espagnol
 (3) Estradizio eskaria ukatua / Rechazada la demanda de extradición / Demande d'extradition refusée
 (4) Behin-behineko askatasuna / Libertad provisional / Liberté provisoire
 (5) Zigor etena eritasun larriagatik / Suspensión de condena por enfermedad grave / Suspension de peine pour maladie grave
 (6) Espetxe arindua / Prisión atenuada / Régime atténué

2. ESPETXE POLITIKA

2.1 OSASUN ESKUBIDEA

Aitzol Gogorza euskal preso politikoak espetxe arindua lortu du

Apirilaren 2an, gaixotasun larria duen Aitzol Gogorza Otaegi preso politiko errenteriarrari espetxe legediaren 100.2 artikulua aplikatu zioten, eta orain espetxe arinduan dago. 20 urte daramatza preso eta Basauriko espetxetik atera zuten Aitzol, falta zaion zigorra etxean bete dezan. Aurretik, Donostia ospitalera eraman zuten.

Txus Martin Galdakaoko presoari bihotzeko ebakuntza egin diote

Apirilaren 30ean, Txus Martin Hernando preso bizkaitarrari bihotzeko ebakuntza egin zioten Basurtoko ospitalean. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten 20 euskal presoren artean dago Txus Martin.

Txusek gaixotasun psikologiko bat pairatzen du eta gainera, bihotzeko gaitza dela eta, ebakuntza kirurgikoa gehitu behar izan zitzaion, bere egoera zailduz eta antsietatea eta larritasuna sortuz.

Etixerat elkartetik Txus Martinek jasan duen presioa eta tratu desegokia salatu genuen ebakuntzaren aurretik eta baita ebakuntzan eta ondoren.

Ekainaren 3an, Txus Martin Hernando Zaballako espetxera eraman zuten berriro ere. Etixerat elkarteak argi utzi nahi du Txus Martin bere etxean egon beharko litzatekela, 104.4-a aplikatuz, edo gutxienez, espetxe arinduan, behar duen tratamenduari egoera egokienean aurre egin ahal izateko.

2.2 ETXERA GERTURATZEKO ESKUBIDEAREN URRAKETA

Gorka Fraile euskal preso politikoa gerturatzeko eskaera ukatu egin du Estrasburgoko Auzitegiak

Modu ezkorran baloratu zuen Etixerat Elkarteak Gorka Fraile preso politiko durangarra Badajozko espetxetik Euskal Herrira gerturatzeko eskariari Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiak emandako erantzuna. Gure ustetan, Europak zuritu egin zuen beste behin ere Espainiak mantentzen duen salbuezpeneko espetxe politika ankerra.

Aurreko kasuetan bezala, Frailek bisitak eta telefono deiak jasotzen zituela modu erregularrean argudiatu zuen Auzitegiak, baina ez zuen kontuan hartu hain urrun zegoen espetxera abiatzeko, higadura fisiko, psikologiko eta ekonomiko ikaragarriak pairatzen zituztela presoaren senide eta lagunek. Gogoratu genuen berriro ere, dispertsioak eta urrunketaren ondorioz 16 hildako eta ehunka zauritu izan direla.

Gainera, Fraileren kasuan, adin nagusikoak direlako eta osasun arazoak dituztelako, bere gurasoak ezin zuten joan Badajozeko espetxera bisitak egitera, eta distantzia luze horrek zailtzen zuela nabari presoaren neskalaguna eta alaba txikiarekiko harremana.

Estrasburgoko Auzitegia ez zen auziaren muina aztertzerara sartu eta Espainiako Estatuaren argudioak ontzat ematera mugatu zen. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ebazpenean jaso duenez, urruntzea terrorismo delituengatik zigortuta daude presoek mugatuta dagoela, eta une politikoaren baldintzen arabera delat. Helegitea aurkeztu zenetik hona, erabat aldatu dira baldintza politikoak. Ez dago erakunde armaturik 2018ko maiatzaz geroztik, eta ez dago borroka armaturik 2011tik, beraz, pentsatu behar da momentu honetan ez dauka oinarri juridikorik presoek urruntzea mantentzeak.

3. SENITARTEKOAK ETA ADISKIDEAK

3.1 ISTRIPUAK

Oier Urrutia euskal preso politikoaren lagun batek ezbeharra jasan zuen bisita egitera zihoanean

Maiatzaren 12an, Oier Urrutia Gonzalez preso politiko gasteiztarraren lagun batek kotxe istripua pairatu zuen, Logroñoeko espetxera bisita egitera zihoala. Ezbeharra goizeko 10:30ak aldera gertatu zen, Logroñon bertan, autobideko ordainlekua pasatu ondoren, beste kotxe batek atzetik jo egin zuenean presoaren lagunaren kotxea.

Talkak kotxeko txapan izan zuen eragina eta bidez batez, atzeko gurpil bat lehertu egin zen baina, zorionez, onik atera zen Oier Urrutiaren laguna. Istripuaren ondorioz, bisita galdu egin zuen.

Dispertsioak eragindako urteko bostgarren kotxe istripua izan zen Oier Urrutiaren lagunak pairatu zuena.

Aitzol Iriondo euskal presoaren hiru lagunek espetxeko bidean kotxe-istripua pairatu zuten

Maiatzaren 31n, Aitzol Iriondo euskal preso politikoaren hiru lagunek estatu frantsesean dagoen Moulins-Yzeure-ko espetxera bidean kotxe istripua izan zuten; Lasarte-Oriatik, bere etxetik, 808 kilometrotara.

Gaueko 21:30ak aldera gertatu zen ezbeharra, Montluçon inguruan, Euskal Herritik 620 kilometrotara, kamioi bat aurreratzen ari zirela animalia bat gurutzatu zitzaien. Kaltetuak lanaldia bukatu eta segidan bidean jarri ziren, bost ordu eta erdi zeramatzaten bidaian eta ordu bat besterik ez zitzaien falta iristeko.

Kolpearen eraginez kotxearen aurreko zatia, kopilotoaren aldeko atea eta faroen kristalak hondatu ziren. Zorionez, gidariak etzuen kotxearen kontrola galdu. Kolpearen kalteak eta urduritasuna handia izan arren, euskal presoaren lagunek bidaian jarraitu zuten bisita egin ahal izateko.

Urteko seigarren istripua izan zen dispertsioaren ondorioz.

3.2 BISITEN ESKUBIDEEN URRAKETA

Maiatzaren 11ko asteburuan, Albocasserreko espetxean (Castellón II, Euskal Herritik 550 kilometrotara) dauden Juan Ramon Karasatorre eta Harriet Iragi euskal preso politikoen senideek jasandako tratu arbitrario eta onartezina salatzen zuten Etxerat elkarteak, eta baita bi presoen emazteei jarritako zigor neurrigabea ere, 6 hilabetez bisitarik gabe utzi baitituzte.

Juan Ramon Karasatorreren emazteari, beti bezala, erraketa pasatu zioten bisitara sartu aurretik; baina kasu honetan, bularretakoak ez pitatu arren, funtzionarioak garrasika eta errespeturik gabe esan zion eskua sartuko ziola bularretan. Karasatorreren emazteak uko egin zion ukitzeari, bularretakoak pitatu ez zuela argudiatuz, eta behar izanez gero bularretakoa kenduko zuela esanez.

Orduan presoaren emaztea kalera atera zuten, bisitarik gabe geratuko zela esanez; egoera honen aurrean, Karasatorreren alabak, eta baita Harriet Iragiren senideek ere, Karasatorreren emaztea bisitarik gabe geratzen bazen haiek ere ez zirela bisitara sartuko adierazi zuten.

Tentsio eta urduritasun handiko une horretan, bi zerbitzu buru agertu ziren eta senideek bisita gauzatu zezaketela adierazi zuten, gainera Karasatorreren emazteari arrazoia emanez, pitatzen ez bazuen ez zegoelako ukitzeko beharrik. Bi presoen senideek bisita normaltasunez gauzatu zuten. Hala ere, bi presoek atzo ohar bat jaso zuten, non bai Karasatorreren emaztea eta baita Iragirena ere, 6 hilabetez bisitarik gabe zigortuko dituztela adieraziz.

Gainera, aipatu beharra dago, funtzionarioen aldeko enpatiarik gabeko testuinguru arbitrario berean, hasieratik arazoak egon zirela euskal presoen senideekin, hiru urteko haur bat sartzea debekatu baitzuten, Harriet Iragiren emazte, alaba eta lehengusuarekin batera halako bidai luzea egin ondoren, eta ahaidetasuna ziurtatzen zuten dokumentu eta baimen guztiak eraman arren.

Erabat salagarria eta onartezina da bi presoen senideei eman zitzaizen tratua, gainera samingarria eta neurrigabea da bi preso hauen emazteei ezarritako zigorra. Astebururo ehunka senide eta lagunek egiten duten bezala, bi familia hauek 1.000 kilometro baino gehiago gauzatu behar izan zituzten maite duten pertsonarekin egon ahal izateko; gainera, haien eskubideak urratzen dituen salbuespenezko neurri anker honi gehitu beharra dago asteburu honetan bizitako bidegabeko egoera eta ezarritako zigorra, baliogabetzea espero duguna.

4. DEPORTATUAK

34 urte eta gero, euskal deportatu politikoak Euskal Herriratzeko eman beharreko pausuak behingoz eman daitezzen eskatu dugu

Etixerat Elkarteak Joxe Angel Urtiaga deportatu santurtziarraren senideek jasan zuten egoera publikoki salatu zuen apirilaren 11n, Joxe Angel bisitatu ahal izateko, Euskal Herritik Cubara bidaiatzea ukatu baitzaien.

Debeku honen jatorria Estatu Batuetako administrazioak ezarritako betoan dago, Bittor Urteagari bertako aire-espazioan hegan egitea debekatzen diona, honek senideek Cubara bidaiatu ahal izatea progresiboki zaildu du. Debeku hau Bittor Joxe Angelen anaia izateagatik dator, besterik ez. Bittor Urteagari egotzi ahal zaion delitu bakarra hori da, Cuban dagoen deportatu baten senidea izatea. Ez dago beste arrazoirik. Euskal preso, iheslari edo deportatu politikoaren senide izatea ez da eta ezin da delitutzat hartu.

Hau dela eta, Joxe Angel Urtiaga eta bere senideak jasaten ari diren egoeraren salaketa publikoaren bitartez, Venezuela, Cuba, Sao Tomé eta Cabo Verden deportatuakdauden beste 11 euskaldunen, eta haien senideen, egoera ere gogorarazi nahi dugu. Duela 34 urtetik hona, salbuespenezko neurri hau martxan jarri zenetik, munduko leku ezberdinetara deportatuak izan diren Euskal Herriko biztanleen kopurua 70era iritsi da, haietako 11 deportazioan hil direlarik.

Euskaldunen deportazioak defentsa aukerarik gabe, ezta inongo oinarri juridiko edo legalik gabe ere, ezarri zirela gogorarazi nahi dugu. Urte guzti hauen ondoren, euskal deportatuak linbo juridiko batean aurkitzen dira; antolamendu juridikoan irudihau ez da agertzen, beraz, deportazioek ez daukate sostengurik oinarri juridikoetan ezta administratiboetan ere. Gainera, deportazioa zigor gehigarria da, ezartzen den momentutik hasita igarotzen den denbora ez baita zenbatzen.

Euskal deportatu politikoaren lagun eta senideok milaka eta milaka kilometro egitera behartuta gaude maite ditugun pertsonekin lotura afektiboa mantendu ahal izateko. Egoera honekin amaitzeko garaia da. Lurralde ezberdinetara bidaiatzeak suposatzen duen gastu ekonomiko handia nabarmena da, eta nola ez, pairatzen dugun sufrimendua eta bidai hauek prestatzea eta gauzatzeak dakarren higadura fisiko eta psikologikoa. Behartutako bidaiak dira, maite ditugun pertsonekin kontaktua mantendu ahal izateko, eta Bittor Urteagaren kasuan, egoeraren krudeltasuna bikoizten da, bidaiatzea debekatzen baitiote.

Deportazioak estatu espainiarrak eta frantsesak beste lurraldeetako aldebiko akordioetan oinarritzen dira. Euskal Herriak bizi duen testuinguru politiko berrian, egoera hau behin betiko desblokeatzeko garaia da. 34 urte eta gero, egoera bidegabe honekin amaitzeko eta euskal deportatu politikoak Euskal Herriratzeko eman beharreko pausuak behingoz eman daitezzen eskatzen du Etxeratek.

DEPORTAZIOA

Deportación
Déportation

EUSKAL
HERRIA

7.500 km

CUBA ③

- Josu Abrikoleta Kortza
- José Angel Urtiaga Martinez
- Iñaki Rodriguez

7.100 km

VENEZUELA ④

- Arturo Cubillas Fontán
- Eugenio Barrutiabengoa Zabarte
- Jesús Ricardo Urteaga Repulles
- José Luis Zurimendi Oribe

3.700 km

CABO VERDE ④

- Tomás Linaza
- José Antonio Olaizola Atxukarro
- Emilio Martínez de Marigorta
- Félix Manzanos

4.900 km

Sao TOMÉ ①

- Alfonso Etxegarai Abarika

Etxerat

5. DISPERTSIOAK ERAGINDAKO BIKTIMEN AITORPENA

Berriro gerta ez dadin: Jose Mari Maruri, Pili Arsuaga eta Alfonso Isasiri omenaldiak

Duela 21 urte, 1998ko ekainaren 22an, Zierbenako Jose Mari Maruri hil zen dispertsioako errepide batean, semea ikustera joaten zelarik. Ekainaren 22an, omenaldi bat egin zion Etxeratek Zierbena bere herrian. Modu berean, ekainaren 29an, duela 29 urte dispertsioaren ondorioz hil ziren Pili Arsuaga eta Alfonso Isasiri omenaldia egin zitzaizen Laudion.

Badugu aurrera egiteko eskubidea. Kostata, baina aro berria finkatzeko pausoak ematen ari gara. Aro itxaropentsurantz abiatzeko eskubidea dugu, konponbidea, elkarbizitza eta bakea lortzeko bidean gaude eta horretarako ezinbestekoa da dispertsioak eta salbuespen espetxe politika krudel honek eragindako sufrimendua aitortzea, inoiz berriro gerta ez dadin.

Egia eta memoriaren ohorez, Jose Mari, Pili eta Alfontsoekin batera, gogoratu nahi ditugu Arantza, Sara, Leo, Karmele, Iñaki eta Argi, Mari Carmen, Antxoni, Iñaki eta Asier, Ruben, eta Natividad.

Dispertsioak eragindako biktimak dira guzti guztiak, errepide arriskutsuak zeharkatu zituztelako, inposatuta, espetxe urrunetan maite zituztenak ikusteko, entzuteko eta besarkatzeko. Dispertsioaren biktimak dira eta horren aitortza ezinbestekoa da inoiz gehiago gertatu ez dadin. Biktima potentzialak gara oraindik ere, euskal presoen senide eta lagunentzat sufrimendua ez da oraindik bukatu.

Dispertsioak eragindako hildakoen senide eta gertukoei gure maitasuna ete gure elkartasuna helarazi nahi dizkiegu. Urrunetaren bukaera, memoria eta etorkizunarekiko konpromisoa adierazi nahi dugu.

6. INSTITUZIOAK ETA ERAGILE POLITIKO ETA SOZIALAK

Giza katea Miarritzen

Ekainaren 8an, euskal preso, iheslari eta deportatu politikoen senide eta lagunok Bake Bidea mugimenduak Miarritzen antolatu zuen giza kate masiboan parte hartu genuen. Euskal preso politikoei aplikatzen zaizkien neurri berezi guztien desagerpena eta bake prozesuan aurrerapena aldarrikatzeko zuen helburu ekimenak. 3.000 pertsonak parte hartu zuten, haien artean 20 bat Iparraldeko hautetsi.

Urrunketaren aurka herri desberdinetan onartutako 59 mozioak aurkeztu dira Eusko Legebiltzarrean

Urrunketaren bukaera eskatuz 59 udaletxeetan onartutako mozioak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zituen Sarek ekainaren 12an. Oso balorazio positiboa egin zuen Etxerat Elkarteak, kontuan izanik gero eta zabalagoa dela alderdi eta instituzioen aldetik urrunketa eta dispersioari emandako ezetza.

Bai Araba, zein Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan, eta baita ere Eusko Legebiltzarrean zein Nafarroako Parlamentuan, urrunketaren aurkako testoak onartu ditu gehiengo batek, eta atzo aurkeztutako mozioekin bukatutzat ematen da maila instituzionalean, testuniguru honetan, egindako lana. Dena den, oraindik ere, beste udaletxe batzutan mozioak aurkezteko aukera izango da eta preso eta senideen eskubideen aldeko lana jarraituko du instituzioetan.

“Orain presoak” lelopean Bilboko Plaza Eliptikoan hartutako konpromisoa eskertu diegu sindikatuei

Ekainaren 21ean, Etxerat elkarteko senideak eta Sareko ordezkariak "Orain presoak" lelopeko sindikatueen elkarretaratzean izan ginen Bilbon.

Garrantzi handia ematen diogu Etxerat Elkartetik adostasuna dugun gaien inguruan sortutako elkarlanari eta bat egiteari. Kasu honetan, euskal presoen egoera behingoz konpontzeko eta salbuezpenerako espetze politikarekin amaitzeko, euskal gizarteak, eta bereziki sindikatuek horren alde egiten duten mobilizazioa oso ongi baloratu genuen.

Hilean behin "Konponbide garaia da. Orain presoak" lelopean sindikalgintzak mantentezen duen dinamika hau, Bilboko Plaza Eliptikoan elkarretaratzearena alegia, eredugarria iruditzen zaigu eta zinez eskertu genuen. Haien desberdintasunak alde batera utzita, bizikidetzeta eta konponbidearen baitan presoak Euskal Herriratzearen alde bat eginik, sindikatuek ongi marrazten dute euskal gizartearen gehiengoaren nahia. Etxerat elkartearen argi dugu hori dela bidea, espazio berriak irabazi salbuezpenerako espetze politika bertan behera uzten laguntzeko.

7. ETXERAT: DEIALDIAK, ADIERAZPENAK ETA AGERRALDIAK

Apirilaren 7an – BATZAR NAZIONALA

Espainiako Gobernuak Zaballara ekarri behar ditu preso guztiak, eta urrats hori azkar eta arduraz egin dezala eskatzen diogu

Gure 18. Batzar Nazionala izen zela-eta Gasteizen bilduta, aditzera eman genuen salbuespenezko espetxe politiken desaktibazioa lortzea izango dela gure lanaren ardatz nagusia datozen hilabeteetan. Horretarako, informazioa, testigantza eta salaketa erabiliko ditugu tresna gisa, urrunketari eta preso gaixoek pairatzen duten muturreko egoerari lehentasuna emanaz.

Urtebete igaro da euskal preso politikoen senide eta lagunok Tolosan egindako Batzar Nazionalean bildu ginenetik, bederatzi hilabete Espainiako gobernu berriak espetxe politikaren aldaketa iragarri zuenetik, eta, oraindik ere, balantzaren alde batek hartzen du pisu guztia. Esan beharrik ez dago gure eta espetxean nahiz erbestean ditugun senideen sufrimenduaz ari garela.

Bitarte honetan, euskal preso bat hil da espetxean; gaixotasun larriak dituzten preso ia guztiek lehen graduan eta espetxe urrunetan jarraitzen dute, tratamendu egokia jasotzeko aukerarik gabe; Frantziako Estatuan bizi osoko espetxe zigorra ezarri zitzaaien lau presoetako hiruk kartzelan jarraitzen dute, baldintzapeko askatasuna lortzeko arauak betetzen dituzten arren.

24 senidek istripuak izan dituzte errepidean, urrunketak dakarren arriskuaren ondorioz, eta nabarmendu beharra dago senide horien artean haurtxo bat zegoela. Dispersioak eragin dituen hildakoen aitortza sozial eta instituzionala bultzatzeko lan egingo du Etxeratek ikasturte honetan.

Espainiako Gobernuak Zaballara ekarri behar ditu preso guztiak, eta urrats hori azkar eta arduraz egin dezala eskatzen diogu, orain dela 30 urte kontrakoa egiteko erakutsi zuen azkartasun eta ardura berberarekin. Izan ere, 600 euskal preso baino gehiago sakabanatu eta urrundu zituen bi hilabeteko epean, penintsulako, Balearretako, Kanarietako, Ceutako eta Melillako espetxeetara bidaliz. Halaber, Etxeratek nabarmendu nahi du premiazkoa dela erbesteratuek eta deportatuek pairatzen duten egoera konpontzea, etxera itzul daitezen.

Espainiako Gobernuak 24 preso (%8,5) lekualdatu ditu Euskal Herritik hurbil dauden kartzeeletara. Teknikoki, hurbildu egin ditu, baina urrats hori ez da inondik ere nahikoa. Oraindik ere, 500 eta 2.000 kilometro bitarteko bidaiak egin behar ditugu astero, gure bizia arriskuan jarritz. Ez dago euskal presoak Zaballara ekartzea eragozten duen inolako aitzakiarik, ez legediaren aldetik, ez baldintza materialei dagokienez.

Herri honen etorkizunarekikoa da gure konpromisoa, absentzia gehiagorik gabe eta min gehiagorik gabe. Gure eskua luzatuta dago gatazka politikoaren konponbidean laguntzeko, elkarbizitza eraikitzeko eta sufrimendua aitortzeko, sekula berriz errepika ez dadin.

Etxean eta bizirik nahi ditugu!

Lasterbidean-eko VII. edizioa Arbizu-Lakuntzan gauzatu zen

Korrikaren kirol eremutik jaiotako euskal errepresaliatuekiko eta beren gertukoekiko elkartasun herri ekimena da Lasterbidean. Kirol eremuan ari den jendeak antolatzen du urtero urtero lasterketa. Maiatzaren 19an, Lakuntza-Arbizun ospatu zen zazpigarren edizioa, "*Leisterka denak itxaa!*" lelopean.

Nazio elkartasun lasterketa da hain justu, euskal errepresaliatuekiko eta beren gertukoekiko elkartasun herri ekimena. Lasterbidean desagertzeko jaio den ekimen bat da, "ez genuke halako ekimen gehiagorik antolatu nahi" esaten dute antolatzaileek. "Horregatik, hau azkena izatea nahiko genuke. Baina azkeneko preso eta iheslaria etxean egon arte halako ekimenak antolatzeko konpromisoari eusten diogu".

Jon Gurutz Maiza presoaren gertukoek jantzi zuten lehenengo zenbakia zeraman dorsala. Lannemezango espetxean dago Jon Gurutz. Preso larrien zerrendan dago bera, ikusmen arazoak, diabetesa, dislipemia, hipertentsioa eta fibrilazio aurikularra ditu eta ia 70 urte ditu. Bere egoera horrela izanik, etxean beharko luke bai ala bai!

Eta Maizarekin batera, gainontzeko preso etxarriarren lagun eta senideak izan ziren lasterketan. Altsasuko presoez aparte, sei preso ditugu kolektiboan, Asier Karrera, Juan Ramon Karasatorre, Luis Mariñelarena eta Unai Parot guztiak Espainiako espetxeetan; eta Oihan Barandalla eta Jon Gurutz Maiza Frantzian.

Iraileko epaiketaren aurrean, gure elkartasuna Etxerateko bi kideentzat eta gainontzeko auziperatu eta haien familientzat

Horra apirilaren 12an, Etxerat elkarteko bi kide eta beste 45 euskal herritarren aurkako epaiketaren inguruan egin genuen adierazpena :

Lehenik eta behin, Etxerateko kide diren Izaskun Abaigar eta Nagore López de Luzuriagari gure elkartasuna helarazi nahi diegu, elkarrekin ordu asko lanean igaro baititugu. Beraiei esker gure egoerak eskatzen zuen asistentzia, euskarria eta orientazioa uneoro bermatuak izan ditugula adierazi nahi dugu euskal preso, iheslari eta deportatuen senide eta lagunok. Beraiek burututako lanaren inguruan ezingo digutela ziririk sartu azpimarratu nahi dugu.

Jakin badakigu; atxiloketa hauek eta ondorengo prozesaketaren arrazoi bakarra, euskal gizarteak aurrera eramane nahi duen bake eta konponbidearen prozesua geldiaraztea dela, izan ere, garai hartan gobernuan zegoen PPren nahia zen; "dena ETA da" kontzeptua aitzaki ezin hobea zelarik.

Asko sentitzen dugu euskal gizarteak oztopo eta zailtasunei aurre egin behar izateak, bake eta konponbidearen prozesuarekin jarraitu ahal izateko, baina ziur gaude, guztion aktibazioak prozesu hau aurrera eramango duela.

Gure elkartasuna auziperatu guztiengana helarazi nahi dugu, beraiek izan baitira errepresaliatuei eta haien familiei aholkularitza juridikoa bermatu, mediku-arreta eman eta elkartasuna aktibatuta dituztenak. 47 auziperatuentzat eta haien familientzat doa gure babes eta maitasun guztia.

Espainiako Gobernuari gure senide presoek bide juridikoa egiteko inongo traba edo oztoporik ez jartzea helarazi nahi diegu

Ekainaren 13an Etxerat eta abokatuak Donostian eman zuten prentsaurrekoren testua:

La bi urte igaro dira Etxerat Elkarteak gure senide presoek osasun asistentzia eta asistentzia juridikoak arduratuko zela iragarri zuenetik, beraiek bide juridikoak egitea aukeratu zutenetik hain zuen ere. 2017ko uztaileko EPPK-ren eztabaidaren ondorioen agirian biltzen zen bezala, preso bakoitzak aukeratu beharko du bide ezberdinak hartzea, edo ez; hala nola, erredentzioak, espetxea, gradu aldaketak, baimenak edo baldintzapeko askatasuna.

Abokatuarekin batera, gure presoek inizatiba juridikoak proposatzen ari dira haien espetxeko egonaldia arintzeko asmoz eta, dagokien kasuetan, haien askatasuna lortzea errazteko, hala ere, lehen graduan jarraitzea, orokorrean, muturreko urrunketarekin batera, espetxe legaltasuna egitea galarazten dute, eta aldi berean, banakako tratamenduaren eskubidea urratzen dute espetxearen onurak edukitzea ukatzearekin batera.

Espainiar Estatuko espetxeetan aurkitzen diren hiru presoetatik bat (213 presoetatik 73) Euskal Herritik urrutien dauden espetxeetan daudela gogorarazi nahi dugu, Andaluzian alegia. Eta urruti dauden beste espetxe batzuk gehituz gero; adibidez, Murcia, Alicante edo Galiza; espetxe garapenak ukatzen dituztenak, bi presoetatik batek (euskal preso politikoaren kopuruaren erdia) bide juridikoa jarraitzea ukatuta dutela esan dezakegu.

Espetxeko administraritzari eta osatuko den Espainiako Gobernuari gure senide presoek bide juridikoa egiteko inongo traba edo oztoporik ez jartzea helarazi nahi diegu. Haien eskubidea den ibilbidea jarraitzeko aukera ematea, modu administratibo zein juridikoaren bitartez gradu aldaketa edukitzeko bermea ematea, lan ezberdinak eta tratamendu barne programetan parte hartzen uztea; eta baita ohiko askatasun baimenen eskaerei baizko erantzuna ematea ere, ondoren hirugarren gradura pasatu ahal izateko.

Salbuespen espetxe politika gaur egun oraindik indarrean egotea, dispertsioa eta urrunketa desaktibatu gabe egotea, eta baita exiliatu eta deportatuen egoerari oraindik ere konponbiderik ez ematea ere zentzugabea den bezala, presoek egiten ari diren banakako eskaerak ezeztatzea eta oztopoak jartzea ere onartezina da. Egoera honek bide hau jarraitzea erabaki duten gure senide presoek eragiteaz gain guri zigor gehigarri bat suposatzen digu, beraiekin egotea oztopatzen digulako. Maite ditugulako eta lehenbailehen gurekin behar ditugulako.

Etxean eta bizirik nahi ditugu!

Iñaki Zugadi abokatuaren hitzak :

2017 urteko udazkenetik hona, Estatu espainolean bide juridikoan hainbat urrats berri eman dira eta haien BALANTZEA egiteko asmoz deitu dugu prentsaurreko hau.

Lehenik eta behin, kontuan izan behar dugu data horretatik gaur arte, 53 preso politiko aske gelditu direla Estatu Espainiarrean, horietako gehienak kondena osoa beteta. Beraz, gaur egun 213 preso politiko aurkitzen dira Estatu espainiarrean.

Nahiz eta horietatik erdiak oso urrun egon, jada 142 preso baino gehiagok abiatu dute ibilbide juridiko berria. Hau da, preso politikoen % 66,66, edo, beste era batera esanda, 2/3-a hasi da gradua errekurritzen, lan destinoak hartzen edo bestelako ekimenak egiten, bere kaleratzea lortzeari begira.

Guzti horiek bakarkako eskaerak egiteari ekin diote, espetxe zuzendaritzaren aurrean eta baita epaitegietan ere. Bigarren gradua lortu dutenek ohiko baimenak eskatzeari ekin diote eta kasu batzuetan, hirugarren graduak ere eskatu dira.

Zergatik ez da presoek 1/3a ibilbide hau egitera sartu? Arrazoi ezberdinak daude erabaki honen atzean, noski, baina nagusiki kontuan hartu behar da preso politikoen erdiak (%50), oso urrunduta jarraitzen duela, beren bizilekuetatik 600 eta 1.100 kilometrora, baldintza oso gogorretan. Honek guztiak preso bakoitzak bere abokatuarekin duen harremana ere asko zailtzen du. Eta, gainera, espetxe horietako Tratamentu Batzordeen jarrera erasokorra da orokorrean, presoak ematen dituen urratsak gutxietsiz eta zailtasunak jarriz. Gaur gaurkoz, salbuespen legediak eta albuespen neurriek indarrean jarraitzen dute.

Beraz, baldintza hauek kontuan hartuta, oztopoak oztopo, urte eta erdiko epe batean preso politikoen bi herena dinamika honetan sartu izanak erakusten du presoek egindako apustuaren neurria.

Aldiz, bide honek eman duen emaitzarekin ezin dugu gauza bera esan. PSOE-ren gobernuak duela urte bete asmo onen berri eman zuen arren, albuespeneko espetxe politikarekin eta urrunketarekin amaituko zuela esan zuen arren, bide honetan amandako urratsak oso eskasak izan dira.

- EIIOk (Espetxe Instituzioetako Idazkaritza Orokorrak) progresioa eman eta hein baten hurbildu dituen presoak: 25
- EIIOk progresioa eman baina hurbildu ez dituenak:
- Hein batean hurbildu arren gradu PROGRESIOA eman ez dietenak: 2
- Etxean preso ezarri dituzten preso gaixo larriak: 1

Bi preso beren bikoteengandik bananduz hurbildu izanaren paradoxa ematen da hemen, edo espetxe administrazioak hurbilketa modura ulertzea Puerto I-etik 200 metrora dagoen Puerto II-ra eraman izana. Bestalde, hurbildutako presoetako hiruk (Mikel Orbegozo, Xabier Sagardo, Iñaki Beaumont) amaitua dute zigorra eta, beraz, aste edo hilabete gutxi batzuetarako izan zen hartutako neurria.

Gaur egun, 43 preso bakarrik aurkitzen dira 2. graduan edo erregimen ordinarioan. Horietako batzuk EIIOren inizatiba izan dira baina beste batzuk epaitegietan irabaziak. Horietako batzuk gerturatuak izan dira baina beste batzuek oraindik Puerto, Almeria, Granada, Jaen, Valentzia edo Galizan jarraitzen dute. Eta, gerturatuak izan direnetatik, inor ez da Euskal Herriko espetxe batera aldatua izan.

Beraz, oraindik ere 170 preso 1go graduan aurkitzen da, hau da salbuespeneko den erregimen batean (arriskutsuak diren presoentzat edo espetxeko bizimodura egokitu gabeko presoentzat den erregimenean aurkitzen dira, baldintza horiek ematen ez badira ere).

Gainera, 1go graduan daudenetatik preso inguru, erregimen itxiko moduluetan aurkitzen dira: Sevilla, Huelva, Cordoba, Puerto I, Extremera eta Curtiseko kideak bereziki gogorak diren moduluetan aurkitzen dira.

BIGARREN graduan daudenen kasuan, haietako gehienek irteera baimenak eskatu dituzte. Gaur egun bakar bati onartu zaio 3 egunetako irteera baimena: Gorka Fraileri. Bere espetxeko Tratamendu Batzordearen aldeko jarrerarekin, ZEZ-ak baimen hori onartu zuen. Gorkaren aurretik, jada kalean dauden beste 4 presok lortu zituzten irteera baimenak, euren kondenaren amaieran: Xabier Sagardo, Ekaitz Ezkerra, Alfredo Ramirez eta Julen Ibarrolak.

Beste kasu guztietan, espetxeetako Tratamendu Batzordeek eta ondoren, bai Zaintza Epaitegi Zentralak eta baita Entzutegi Nazionalako 1go Sekzioak ere, irteera baimenak ukatu ditu. Hau bereziki salatu nahi dugun kontua da: legezko baldintza guztiak beteta izan arren (kondenaren 1/4a beteta izatea eta 2.graduan egotea), sistematikoki ukatzen ari dira irteera baimenak.

Beraz, BALANTZEA gazi-gozoa da, eta, presoen jarrera guztiz txalogarria den arren, ezin da gauza bera esan espainiar espetxe politika gidatzen dutenengatik. Preso politikoek emandako urrats guztiak emanda ere, salbuespeneko neurriak aplikatzen jarraitzen dute. Ez zaie indarrean dagoen legedi arrunta aplikatzen. Legedi arruntaren baitan, 2.graduan dauden presoek

irteera-baimenak jaso beharko lituzteke, ondoren 3.gradua eta azkenik, baldintzapeko askatasuna lortzeko.

Legedi arrunta aplikatuta, ezin da preso politiko bakar bat ere 1go graduan mantendu.

Beraz, dei egiten diogu:

espetxe bakoitzeko tratamendu batzordeari, espetxe zuzendaritza orokorrari eta beraz, gobernuari:

Utz diezaiotela iraganeko espetxe politika ezartzeari, azken hamarkadan ezer gertatu ez balitz bezala.

Utz diezaietela presoiei banakako bidea egiten eta beraz, ez diezaietela salbuespenezko neurri murriztaileak eta kolektiboak ezarri. Behingoz errespeta dezatela beren legedi arrunta eta indarrean dagoen espetxe araudia, euskal presoek bide juridiko-penitentziarioa egin dezaten, lege horiek jasotzen ez duten baldintzarik bete beharrik gabe.

Eta dei egiten diogu:

Zaintza epaitegi zentralari

Espetxe politika iraganeko politika antiterroristatik at utz dezala, eta ausardiaz, heldu diezaiela presoek eskubideei.

Nora Cortiñasekin bilera eta elkartasunaren aldeko brindisa egin dugu

Apirilaren 19an, Maiatzeko Plazako Amak -Adar Sortzailea- mugimenduko kidea den Nora Morales de Cortiñas hartu zuen Etxerat Elkarteko senide ordezkari batzuk Bilboko egoitzan. Veronica Heredia abokatuarekin lagunduta etorri zen Nora.

Preso Politikoen Nazioarteko Egunaren harira etorri zen Euskal Herrira Nora Cortiñas eta horren baitan, euskal preso eta iheslari politikoen senideekin bileratxo bat burutu genuen. Askatasuna, justizia, egia eta elkartasunaren aldeko brindisa egin genuen bilera bukatzean.

7. KINKEA

Kinkea udako promozioari dagokion zozketaren lehenengo saria 15.280 zenbakiarentzat izan da

Kinkea bigarren promozioari dagokion zozketa burutu genuen ekainaren 21ean, eta **20.000 €** ko sari nagusia 15.280 zenbakiarentzat izan zen. Irantzu Lekue artistak ekoiztutako "Askatasunaren argia" arte lanarekin batera, **Bilbon** saldu da zenbaki sariduna.

Sari nagusiarekin batera, beste 138 sari banatu dira; 5.000€ ko 3 sari; 1.000 € ko 15 sari; 500 € ko 20 sari; eta 100 € ko 100 sari.

Etixerat Elkarateak abiarazi du Kinkea izeneko produktu promozioa. Promozioak emango dituen diru-bilketa Etixerat Elkaratearen jarduera finantzatzera zuzenduko da, alegia, preso eta iheslarien senide eta lagunei asistentzia, aholkularitza eta laguntza eskaintzeaz gain, gure gain hartu ditugun presoen asistentzia juridikoa eta osasun asistentzia bermatzea.